BIOTEKNOLOGIA INGENIARITZAN

- **Jakintza adarra:** Ingeniaritza eta Arkitektura
- **Campusa:** Bizkaia
- **Ikastegi antolatzailea:** Bilboko Ingeniaritza Eskola
- **Gradua/k:**
  Ingurumen Ingeniaritza
  Industria Teknologiaren Ingeniaritza
- **Garapen-lekua (helbidea):** Bilboko Ingeniaritza Eskola, 1-B eraikina. Sarrera: Luis Briñas eta Juan Antonio Zunzunegi kaleak (metro irteera). Bilbo (Bizkaia).

1. JARDUERAREN DESKRIBAPEN LABURRA

Prozesu biologikoen bidezko kutsatzaileen ezabapenerako erabiltzen diren ekipoak, teknikak eta prozedurak ezagutu eta ohitura hartu ahal izango duzu. Jarduera honetan, uretan eta airean dauden mikroorganismoen identifikazioa nola egiten den ikasiko duzu; izan ere, etapa hori funtsezkoa da kutsatzaile biologikoak ezabatzeko eta kontrolatzeko estrategia eraginkorrak diseinatu eta aplikatzeko lehen urratsa delako. Horrela, hondakin-uren araztegien eta usainak ezabatzeko instalazioen funtzionamendua ulertuko duzu.
Gainera, Bilboko Ingeniaritza Eskolako Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumenaren Ingeniaritza sailaren laborategi batzuk ezagutzeko aukera izango duzu eta, Ingeniaritza Kimikoa eta Ingurumen Ingeniaritza esparruan eskaintzen ditugun graduko ikasketei buruzko ikuspegi orokor bat emango dizuegu.

2. LANDUKO DIREN GAIAK/EDUKIAK

Laborategiko 2 praktiken bidez, ingurune fisiko desberdinetan, ura eta airea (barnekoa eta kanpokoa), hain zuzen ere, koloniak sortzen dituzten unitateak isolatzea eta identifikatzea lortuko da. Honekin batera, ikasleek titulazioaren beste lan-esparruei buruz ikasiko dute.

3. EGINGO DIREN EKINTZAK

Lagina hartu, laginaren egokitzapena (beharrezkoa izango balitz) eta, mikroorganismoen hazkuntza egingo da ingurune espezifikoan eta mikroorganismo bakoitzari dagokion tenperatura egokian. Mikroskopia optikoaren oinarrizko ezagutza mikroorganismo lagin desberdinen behaketa egiteko.

4. EGUTEGIA ETA PLAZAK

Data	Hizkuntza	Txanda	Ordua	Plazak
2027-01-18	Elebiduna	Arratsaldez	15:30-18:30	12
2027-01-25	Elebiduna	Arratsaldez	15:30-18:30	12
2027-02-01	Elebiduna	Arratsaldez	15:30-18:30	12